

ANTZIÑAKO NAFAR-MENDIKO OROITZ BAT. ¹



I.

Amacho, amacho, ez nazkitzu oraiñ adiarazitzen, len bezela, kon-tucho eta ipuiak; ai! ura poza ematen zirazun esaten asitzen ziñanetik bukatu arteraño gauza kutun ayek; bañan oraiñ...! oraiñ...! guztiz aserre nago zurekiñ amacho, ez nazkitzulako erakusten, zergatik, ama-cho, dakizun bezela; bigar, aundi, aundi egiten naizenerako, emaku-me ezertarakoa izan nariyen, nai ditut gauz asko jakiñ, guztitatik, jendiak esan dezan nere amachoren alaba zér argiya irten dan; ¿ala ez da, amacho?—

Orlašen zion aur batek bere amari gizon baten aunditasunarekiñ: aur šamurra izan arren, bere esaeretan igartzen zitzayon gelegizko argitasuna, bere amaren zoramen guziya ber bera zan, ikusirik bere au-rraren izketa-aldi indartsua: alaz ere, berak ematen zuben sekulako go-go maitatzeko eta laztantzeko; ikusirik bere begi beltz argiak eta alayak, musu-masaill gorriškadunak, far irria beti ezpañetan, bere burua jantziiaz ille diz-dizari fiña, garrondoan bera kiškur-kiškur egiñik, jos-taketan bezela.

Au zan bere amaren atsegiñ guzia; eta etzan guchiagorako ere.

Bere amak ez bazizkan len beziñ maiz ipuiak entzun azitzen, zan bere erregu šamur ayek aditziagatik, ain ziran zorionezko itz legun eta negarcho naigarriak; bere amaren gozotasun aundiena ori zan, eta baita aurrarena ere, bere amak asiera ematen zionian kondairachoen bati.

(1) Leyenda premiada con una pluma de plata sobredorada en los Juegos florales celebrados en esta Ciudad en 1890.

Bizan ziran abek Nafar-mendi batean; tontor batean zekaten beren echea, chukun aña polita; zan baserriho bat, bere jira guzian zegolarik aritz-arbol sendoz ingurutua.

Toki-ayetan etzan azaltzen, ez! sarjiñ lore kolore findunik, eta ziranak etzuten banatzen likurt gozorik, dana igarra zegoen; aben ordez ageri ziran, eri-koloreko belar batzuen tartetik, alako arroka senduen ertz zorrotzak; jende guchi igarotzen dan lekua da, ez da besterik agertzen baizik bele banaka batzuen kabiak, eta ango išiltasuna urratu-rik noizian beingo bendabalen chištua.

Leku guzi artan ez dira iñoiz ikusten udaberriko egun sentiaren edertasunak, negu gogorrean bezin saminduba egoten da urtearen lau eretan: nunbait an gertatu zan irudi tristeak ez dio betik ematen edertasunari bere galak banatzeko mendi gañ artan.

Ta, baita oraindik ere, badirudi Jainkoak beltzez jantzi naye-yan bezela dakazkiela ango bazterrak, bada mendi artatik diruri ez dala aldebanatzen beñere dagon lañoa.

Inguru artako echol artan, ala bizi ziran, pake-pakian, munduko izate aundiak baterere gogoratu gaberik, ama alarguná, gure aur zoragarria, illoba bat eta morroia.

Morroiak eguna eta arratsaren ordu geyenak igarotzen zituben echetik kanpoan, bildocha tartian, aberi kontu egiñaz.

Illoba berriz, soro chiki bati beti eragiten, nai bezela eziñ apaindu nayan.

Eta ama bere aurraren laguntzan echeko lanetan.

Onela bizi ziran iñoren gaizki-ikusi nairik gabe.

Echeko atian beti zegoen zakurra, zuri beltza, belarri aundiak zintzilik zitubela, guztiz zarra; *man-en* izenaz aditzen zuen; aurraren aitonak jarritakoa; zakur au zan aurrarren lagun maitienetako bat eta betiko laguntzallea.

Ontan, bada, illunabarra zetorren gañera eguzkiaren errañubak gorderik zerubaren urrutian, eta gure aurchoaren ama, ipiñirik afaltzeko otordua, zegoen su ondoan, alki batean iširirik echeko lagunak etorri zai.

Mariren musuan, auñen zan gure aurraren amak zuen izena, igarutuzen zan alako naigabe batek senti erazotzen digunean bezela, bere masallaren gañetik bera išuriaz malko banaka batzuek. Bi illabete etziran oraindik alargundu zala.

Orla zeguela, atari aldetik sentitu zuben aurraren otsa, deiturik

—amacho!... amacho!...—eta bat batean agerturik leyora eranzun zion —zér dezu, izar neria?—amacho, ara nola datorren malda artatikan Joancho, (au zan morroia), eta kantari datar, amacho, goše da noski?—

Alako far gozo batekiñ eranzun zion amak aurrari, maitetasun onezko, ama batek bakarrik sentitulezaken šamurtasun arrekiñ. Eta nola ez?; bere aurraren begietatik ikusten zuben ama zan. Barrena sartu zan leyoa utzirik; abiyatu zan mayeko zapi zuri-zuria jartzen, bere gobarako usai gozo-gozoarekiñ. Eta platerak jartzen asi zaneke, agertu ziran bat batean, ataritikan barrena Joancho, illoba beste alde batetikan eta aurra bere zakur aundia atzetik zubela, bakoitzak bertatik artubaz bere iširilekuba.

Nola illuna etorri zan gañera, krisellu baten argi eskašak pištutzen zuben bazter chiki artako itzaltasuna; bedeinkaturik zarrenak maya, asi ziran zekaten šalcha jaten, aurchoa bere amaren magalean iširirik.

II.

Gure irakurgai onen gertaera igarotzen zan 790-garren urteko illunabar batean.

Afal ondoren famili ura asi zan egun artako lanaren gañeko itz bidietan, bakoitzak esanaz bere gertaerak.

Bañan aurra, gaztechua izan arren, bazirudien arren itzak obeto-adituak izaten zirala, ain zan naigarria berez. Ontan ariyan, ariyan, esaten diyo amari.—Amacho, orain bai, orain bai esan biarko gaituzula, lengo batian agindu ninduzun kontuchoa.—Ai, bai, ez nintzan gogoratzen ere, nere aur maitia—eranzun zion amak musu bat emanik kopetaren erdian.

—Orra bada—abiyatu zan esaten, poz aundia emanik aurraren gogoai, zergatik aušen zan onen jostaketik onena, gezurra iruditu arren aur baten gaztetasun šamurrean.—Orra bada,—aurreratu zan esanaz—Aitona gureak esantako kondaira bat bear dezute jakiñ oraiñ, zion,—barrenian ondo gorderik beñere aztu ez dediñ, zergatikan esatera nuan gaurko kontuak baño atsegiñ aundiagorik, etzion ezerk ematen gure aitonari.—Ori ondo dakigu, echeko andria; beste gauzarik aditu aldegu beti, emen eta bazter ontako inguru geyenetan?—eranzun zioten, bat batean, illobak eta morroiak.

—Bañan, nik ez dakit ordian—esan zuben aurrak larri-larri eta jakin dezadan nai det aditu, gaur edo bigar asko, asko jakin dezadan, ala, ez da amacho?

—Bai, bai maitia—eranzun zion.

—Urte pill aundirik ez da oraindikan, gure aitona sendo zeguen denboran, pentsa omen zuten Erroma aldeko erdaldun gudari indar beteak, Españira etorri eta menderatzia, ¿zér uste dezute?... ¡Euskaldun erri guztiya....!

—Ja!... ja!... ja!...—onlako algara lasai batekiñ eranzun zuten eche chiki artako aditzalle guztiak.

—Bañan, zaudezte, ez galarazi bada—esan zuen amak; ayen farra-
ren tartian nasturik azkeneko itz abek.

—Ontarako bildu omen ziran ez dakit nik zenbat milla jende, se-
kulakoak, Erromako gazteria, pill artan ustedet nik geyena izango zala, eta buruzai zutela Karlo-Man izendatzen zan gizon argi bat.

—Oi!... oi!... amacho, amacho—galerazirik itz-bidea esan zuen aurrak—man esandezu, man, oi! gure zakurraren izena.

—Bai, zaude, arreatikan jarri zioten, gero jakingo dezun bezela.

—Abiyatu omen ziran, gure aldera, Erroma aldeko gudari guziak; ibilli ta ibilli, joan ta joan, egualdi char, egualdi on, busti-legorrean, gora-berak izanik bidean eta ez dakit zenbat denboren buruban, alde-
ratu omen ziran Españira, eta baita beren gain artu ere Zaragoza, Jaka eta gure inguruko Iruña ta beste zenbait erri, bañan sarri, argatikan, irten biar omen zuten, eta ontarako gogoak eman omen zioten Eus-
kaldun erritikan biurtzia, autsi-urratubaz topoz-egiten zuten guzia: bañan emengo inguru guziak jakiñen gañian jarriak omen zeuden, zer egin bear zuten eta oi!... ayek gauzak! ikara ematen dit gogoratze utsak! Ara non datorren urrutitik alderatzen Karlo-Manen jendea, panparroi, beren adarrezko tronpetakiñ soñu joaz, sartzen dira Engi aldetikan Erro arturik, Orreaga aldera abiyarik; ordurako emengo menditar guziak omen zeuden beren lekubetan guztiz erne, eta zakur au zegoen etzinta, bañan aguro igarri omen zuben kanpotarren usaya, eta alcharik, astindurik bere kalparra asi omen zan zauk eta zauk, on-
tarako alderatu omen zan gure Altabiskarko parera eta orduan gure aitonak eragiñaz besoak deadar egiñik, ots omen zuben «¡Aurrera mutil-
llak!» ta ura izan omen zan Altabiskarko tontorrek dardartzeko naikoa, beltz-beltzturik odoyak, eta arrokkak purrukaturik ereriaz erromatarraren gañera. Irudi ura nola adierazi, zan bezela?, ez da erreš! *Jesus* batean

eriotza jabetu omen zan danetaz. An utzi zituzten gorputz muntuetan beren biziak Eginardok, Anselmok eta Errolanek.

Bat batean sakabanatu ziran guziyak, zentzuak galdurik, eta nasturik deadarrak antsiakiñ, arratsaren illuntasunean estalirikan.

Andik denbora guchi barrun gelditu omen zan ezer gertatu ezpazan bezela; etzan aditzen norbaiten noizian beingo ojua besterik.

Erromatarrak euskaldun lurrera alderatu ziran, bañan sartu ziranak etziran geyago biurtu beren jayot-errira.

Egazti gosetsuak makiña bat denborako jana bildu zuten beren ka-biyetara, gorputz ayen mamia bukatu artean.

Ordu ezkeru, lurraren jiran bizidan iñori, ez omen zayo gogora etorri Euskaldunen erria menderatzea.

Eta orra, ordu ezkeru gure zakurra deitzen da *Man*, orduko oroi-tzagatikan.

—Ederki, ederki amacho—aurra abiyatu zan esanaz, chalo gogoz egiñaz bere eskucho biguñakiñ, guztiz pozturik eta eranzunaz bukatu ondoren.—Ori bai ez detala iñoiz aztuko.

—Orra amak nola erakutsi dizun beste kondairachoa, ala ez da?— Bai, amacho—esan zion laztandurik.

—Ordu ezkeru—zion amak—mendi ontan, banatzen da oiarzun baten gisa, zuk dakizun kantacho bat, zuk ondo dakizu, aitacho zeru-ban dagonak erakutsia da, esazu, esazu. Etzera gogoratzen?... Ez?... Etzera gogoratzen aitachok erakutsitakoa?... Ia nik asiyera emanta oroitzen zeran: O...ju...bat...a...di...tua... izan...da... Eus...kal... du...nen...men...dien... ar...te...tik....—Oi, amacho, amacho, ez esan geyago, ez dakit beste gauzarik obeto; aitachok erakutsia, eta ori kantari lo arrerazi egiten ninduen, nola aztu, bai zera...! Begira, begira amacho—aurrak eranzun zion amari, bere ezpañetako far naigarriri arreakiñ, eta alako alaitasun eztiarekiñ, zekielako ama poztuko zala berak kantatubaz.

Eta aurrak duten boza legun biguñarekiñ, bere betiko irri aren tartetik, asizan kantari chikiya, Euskaldunen erriko kantik aundiena esanaz onela:

«Oju bat aditua izan da
Euskaldunen mendien artetik,
Eta echeko jaunak, bere atearen aitzinean zutik
Iriki du belarria, eta esan du: ¿Nor da or? Zer nai dute?

Eta zakurra, bere nausiaren oñetan lo zeguena
Alchatu da, eta karrasiz Altabiskarren inguruak bete ditu.»

Aingeru arrek bukatu zubenian beziñ laister esatez kanta au, bere
amari išuri zitzaizkan bi malko, bat alaya, bestia saminduba! lenbizi-
koa aurraren pozak eragiñazia, bigarrena kanta artan igarri zutelako
bere senarraren izate guztia! !
. !

Eta onela bizi ziran Altabizkarko mendi doaitsuan jende ayek, al-
kar guztiz maiterik paketasunaren erdi-erdian.

III.

Oraindik ere, gaurko egunean, Nafarroako menditar banaka batzu-
ben artean, aditzen da Altabizkarko kantaren soñu doaitsu naigarria.

FRANZISKO LOPEZ ETA ALEN.

